Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

5511

EBAZPENA, 2008ko irailaren 16koa, Lehendakaritzaren idazkari nagusiarena, 2008rako mugaren bi aldeen eta eskualdeen arteko lankidetza-proiektuei laguntzak emateko deialdia egiten duena.

Uztailaren 28ko 189/1998 Dekretuaren bitartez, mugaren bi aldeen eta eskualdeen arteko lankidetza-proiektuen laguntzak arautu ziren.

Ondorioz, eta aipatutako dekretuaren 6. artikuluaren 1. paragrafoan ezarrita dagoenarekin bat etorriz, 2008. urteko ekitaldirako dirulaguntzen deialdia egiten da, 2008ko ekitaldirako EAEko Administrazioko aurrekontu orokorraren pentzutan.

Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudiarekin (EK) bat etorriz, Ituneko 87. eta 88. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (2006-12-28ko EBAO, 379. zk.), laguntza hauek minimis-tzat hartzen dira, pertsona juridiko edo fisiko jakin bati ematen zaion dirulaguntzaren zenbateko osoa ezin daitekeelako izan 200.000 eurotik gorakoa, hiru ekitaldi fiskaletan zehar. Muga horren azpitik emandako laguntzek ez diotela merkataritzari kalterik egiten eta/edo ez dutela lehia faltsutzen uste da, eta horren ondorioz ez direla sartzen EK-ren tratatuaren 87.1 aplikazio-eremuan.

Beraz, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

2008 urterako mugaren bi aldeen eta eskualdeen arteko lankidetza-proiektuei laguntzak emateko deialdia egiten da. Laguntza horien diru kopurua 120.000 eurokoa da, eranskin bakarrean onartu eta agertzen diren oinarriak kontuan izanik.

Dirulaguntzak esleitu aurretik, artikulu honetan izendatutako guztizko diru kopurua aldatzeko aukera dago, betiere, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko beste laguntza programa batzuk burutzean diru-rik geratzen bada eta eskatutako dirulaguntza guztiak kontuan hartuta. Horren berri eman beharko du ebazpen baten bidez Lehendakaritzako idazkari nagusiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honetan eta uztailaren 28ko 189/1998 Dekretuan aurreikusita ez dagoen guztian,

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

5511

RESOLUCIÓN de 16 de septiembre de 2008, del Secretario General de la Presidencia, por la que se convocan subvenciones a proyectos de cooperación transfronteriza e interregional para 2008.

El Decreto 189/1998, de 28 de julio, establece la regulación de las subvenciones a proyectos de cooperación transfronteriza e interregional.

De conformidad con lo establecido en el artículo 6, apartado 1, del citado Decreto, procede convocar las subvenciones para el ejercicio 2008. Esta convocatoria se realiza con cargo a los Presupuestos Generales de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el año 2008.

Por otro lado, de acuerdo con el Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado a las ayudas minimis (L 379/5, 28-12-2006), estas ayudas son calificadas minimis, puesto que ninguna ayuda total concedida a una persona jurídica o física determinada superará los 200.000 euros, durante cualquier periodo de tres ejercicios fiscales. Se considera que por debajo de este límite las ayudas no afectan al comercio y/o no falsean la competencia y por consiguiente no entran dentro del ámbito de aplicación del 87.1 del Tratado constitutivo de la Comunidad Europea.

Por todo ello,

RESUELVO:

Artículo único.– Convocatoria.

Se convocan subvenciones a proyectos de cooperación transfronteriza e interregional para el ejercicio 2008, por un importe global de 120.000 euros con arreglo a las bases que se aprueban y figuran en el anexo único.

El importe global consignado en este artículo podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas de la Secretaría General de Acción Exterior y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Secretario General de la Presidencia.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En lo no previsto en la presente Resolución y en el Decreto 189/1998, de 28 de julio, será de

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da. Lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira.

Hirugarrena.– Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 16a.

Lehendakaritzaren idazkari nagusia,
JESÚS PEÑA MARTÍNEZ.

aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Segunda.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercera.– La presente Resolución surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de septiembre de 2008.

El Secretario General de la Presidencia,
JESÚS PEÑA MARTÍNEZ.

MUGAREN BI ALDEEN ETA ESKUALDEEN ARTEKO LANKIDETZA-PROIEKTUAK EGITEKO LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Deialdi honen xedea 2008ko aurrekontuen ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen dirulaguntzen esleipena da. Dirulaguntza horiek, uztailaren 28ko 189/1998 Dekretuan batzen diren terminoetan, mugaren bi aldeen eta eskualdeen arteko lankidetza-proiektuak egingo dituzten pertsona edo erakundeei zuzenduak izango dira.

Bigarrena.– Eskatzaileak.

1.– Laguntzak pertsona fisiko edo juridikoek eskatu ahal izango dituzte, pribatuak nahiz publikoak izan, baldin eta beren helbidea laguntzak jasoko dituzten ekintzak garatuko diren eremu geografikoan baldin badute. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ez du laguntzarik eskatzerik izango.

2.– Proiektu bakarra eskatzaile bat baino gehiagoren artean aurkezten denean, titularkideek beraietako bat izendatu beharko dute Administrazioaren aurrean proiektuaren ordezkari izateko.

Hirugarrena.– Proiektuak.

1.– Kofinantzatzeko aukera izateko, aurkeztutako lankidetza-proiektuen ekintzak laguntzak arautzen dituen dekretuko 2. artikuluan aipatutako eremuetan garatuko dira eta artikulu horretako baldintzak bete beharko dituzte.

2.– Proiektuak esleipena ebazten denetik urtebetera egin beharko dira beranduenez.

BASES DE LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES A PROYECTOS DE COOPERACIÓN TRANSFRONTERIZA E INTERREGIONAL

Primera.– Objeto.

La presente convocatoria tiene por objeto la adjudicación de las subvenciones que la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco destina en el ejercicio presupuestario de 2008 a personas o entidades que realicen proyectos de cooperación transfronteriza e interregional en los términos recogidos en el Decreto 189/1998, de 28 de julio.

Segunda.– Solicitantes.

1.– Podrán solicitar las ayudas las personas físicas o jurídicas, tanto privadas como públicas, excluida la Administración General de la Comunidad Autónoma, que tengan su domicilio en el ámbito geográfico donde se desarrollarán las actividades subvencionadas.

2.– En el supuesto de que varias personas solicitantes presenten un único proyecto, las personas titulares deberán designar a una de ellas como representante del proyecto ante la Administración.

Tercera.– Proyectos.

1.– Para tener acceso a la cofinanciación los proyectos de cooperación presentados deberán consistir en acciones que se desarrollen en las áreas y con los requisitos señalados en el artículo 2 del Decreto regulador de las ayudas.

2.– La ejecución de los proyectos habrá de producirse en el plazo máximo de un año desde la Resolución de adjudicación.

Laugarrena.– Eskaeren aurkezpena.

Eskatutako baldintzak betetzen dituzten proiektuen eskatzaileek eskaera-informea aurkez dezakete ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik 2008ko azaroaren 3a arte, honako helbide honetan.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
Lehendakaritza / Presidencia del Gobierno Vasco
Nafarroa kalea, 2
01007 Vitoria-Gasteiz

Bosgarrena.– Eskaera betetzeko modua.

Eskaera-informea bikoiztuta aurkeztuko da eta hamabigarren oinarrian ezarrita dagoen eredua jarraituko du.

Seigarrena.– Eskaeren zuzenketa.

1.– Eskaerak behar diren datu guztiak biltzen ez baditu, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak dagokion pertsona edo entitateari eskatuko dio 10 egunen epean hutsa zuzendu dezala edo falta diren dokumentuak aurkez ditzala.

2.– Epe hori bukatuta, jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera, eskatutakoa aurkezten ez badu, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluaren arabera ebazpena eman ondoren.

Zazpigarrena.– Esleipen eta kuantifikazio irizpideak.

1.– Laguntzak esleitu eta kuantifikatzeko honako lehentasun irizpideak izango dira kontuan.

a) Proiektua mugaren bi aldeen eta eskualdeen artekoa izatearen indarra (% 50).

b) Proiektuaren garrantzia, bertan parte hartzen dutenak eta bere izaera kontutan hartuta (% 20).

c) Eskatutako laguntzaren kopurua proiektuaren kostu osoaren proportzioan (% 10).

d) Proiektuaren zabalera laguntzak arautzen dituen dekretu honen 2. artikuluan bilduta dauden arloetatik ahal den eremurik zabalenera (% 10).

e) Proiektuak beste laguntzarik ez izatea (% 10).

2.– Eskabideen artean lehentasun-ordena ezartzeko aurkeztutako eskabideak alderatuko dira aurreko atalean ezarri diren balorazio eta hautaketa irizpideen arabera. Aukeraketa fasean balorazio handienak lortu dituzten eskabideei esleituko zaizkie dirulaguntzak, hala balegokio, kredituak agortu arte.

Cuarta.– Presentación de solicitudes.

Las personas solicitantes cuyo proyecto y características cumplan los requisitos exigidos podrán presentar por cualquiera de los medios previstos en la normativa de procedimiento administrativo, un Informe-Solicitud desde el día siguiente a la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco hasta el 3 de noviembre de 2008 dirigido a:

Secretaría General de Acción Exterior
Lehendakaritza/Presidencia del Gobierno Vasco
C/ Navarra, n.º 2
01007 Vitoria-Gasteiz

Quinta.– Formalización de solicitudes.

El Informe-Solicitud, que se presentará por duplicado, con indicación de la fecha, sellado y suscrito por la persona solicitante o de su representante legal, seguirá el modelo que figura en la base duodécima.

Sexta.– Subsanación de defectos en las solicitudes.

1.– En el supuesto de que la documentación presentada fuera incompleta, la Secretaría General de Acción Exterior requerirá a la persona o entidad solicitante para que en el plazo de diez días remita la documentación complementaria.

2.– Transcurrido dicho plazo, a contar desde el día siguiente al de su notificación, sin presentar la documentación requerida, se le tendrá por desistida de su petición previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Séptima.– Criterios de adjudicación y cuantificación.

1.– Para la adjudicación y cuantificación de las ayudas se tendrán en cuenta los siguientes criterios de preferencia.

a) Intensidad de la naturaleza transfronteriza e interregional del proyecto (50%).

b) Importancia del proyecto en consideración al carácter y a las personas participantes en el mismo (20%).

c) Importe de la subvención solicitada en proporción a los costes totales del proyecto (10%).

d) Extensión del proyecto al más variado campo posible de las áreas que se recogen en el artículo 2 del Decreto regulador de las ayudas (10%).

e) No concurrencia de otras ayudas o subvenciones al proyecto (10%).

2.– La concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración y selección establecidos en el apartado anterior y adjudicando las ayudas a las que hayan obtenido la mayor valoración hasta agotar, en su caso, los créditos asignados.

3.– Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko aurrekontuan jasotako gastuen zenbatekoa oinarri hartuta bakoitzak lortutako puntuazioaren ehuneko baliokidea ezarriko zaio, eta puntuazio gehienetik gutxienera banatuko dira zenbatekoak, bakoitzari dagokiona esleituz, edo gutxiago balitz, eskatutakoa.

4.– Dirulaguntzak ez dira proiektu bakoitzaren guztirako kostua baino gehiago izango.

Zortzigarrena.– Ebaluazio Batzordea.

Uztailaren 28ko 189/1998 Dekretuaren 8.1 artikuluan aurreikusitako ebaluazio-batzordeak honako kide hauek izango ditu:

– Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia, batzordeburua.

– Kanpo Harremanetarako Lehendakariaren ordezkaria, bokala.

– Sofia de Orue Valdés andrea, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko teknikaria, bokala, era berean batzordearen idazkaritza funtzioak beteko dituena.

Bederatzigarrena.– Esleipen ebazpena.

1.– Deialdiko dirulaguntzak Lehendakaritzako idazkari nagusiaren ebazpen batez esleituko dira, uztailaren 28ko 189/1998 Dekretuko 8.1 artikuluan aurreikusitako batzordeak proposamena egin ondoren. Esleipen ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Ebazpen hau dela-eta egin diren eskaerak erabaki eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Epe horretan jakinarazpenik ez badago, eskabideak ez direla onartu ulertu beharko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarrita dagoenarekin bat etorriz.

Hamargarrena.– Ordainketa.

1.– Orokorrean, emandako dirulaguntza berariazko banku kontu batean ordainduko da eta ordainketa jarraian datorren modura egingo da:

a) % 30, esleipen ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agertzen den egunetik 10 egunen buruan.

b) % 50, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari proiektuaren % 30aren fakturak eta egiaztagiriak aurkeztu eta horrek onartzen dituenean, hamaikagarren oinarriak eskatzen dituen egiaztagiriekin batera.

c) Falta den beste % 20, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari proiektuaren % 100aren fakturak eta egiaztagiriak aurkeztu eta idazkaritza horrek onartzen dituenean, hamaikagarren oinarriak eskatzen duen ziurtatzeko memoriarekin batera.

3.– La concreta determinación del importe de la subvención, se efectuará siguiendo un orden descendente, aplicando sobre la base del gasto subvencionable presupuestado el equivalente en porcentaje de la puntuación alcanzada por cada uno de ellos, concediéndose la cuantía resultante o, si fuera menor, el montante solicitado.

4.– Las ayudas no podrán superar el coste total de cada proyecto.

Octava.– Comisión de Evaluación.

La Comisión de Evaluación prevista en el artículo 8.1 del Decreto 189/1998, de 28 de julio, estará conformada por los siguientes miembros.

– El Secretario General de Acción Exterior, Presidente de la Comisión.

– El Comisionado del Lehendakari para las Relaciones Exteriores, vocal.

– Dña. Sofia de Orue Valdés, Técnica del Área de Cooperación transfronteriza de la Secretaría General de Acción Exterior, vocal, que actuará además como Secretaria.

Novena.– Resolución.

1.– La convocatoria será resuelta por Resolución del Secretario General de la Presidencia, a propuesta de la Comisión prevista la base anterior. Dicha resolución de adjudicación, que agotará la vía administrativa, será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– La Resolución de adjudicación deberá dictarse y notificarse antes de transcurridos seis meses desde la entrada en vigor de la Resolución de convocatoria. Si transcurrido este plazo no hubiera sido notificada a la persona interesada Resolución alguna, podrá entenderse desestimada la solicitud, de conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Décima.– Pago.

1.– Con carácter general la ayuda concedida se abonará en una cuenta bancaria específica y su pago se hará efectivo en los plazos siguientes:

a) Un 30%, a los 10 días de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la resolución de concesión de la ayuda.

b) Un 50%, previa presentación y aprobación, por parte de la Secretaría General de Acción Exterior, de facturas y justificantes del desarrollo del proyecto en un 30%, junto a los informes justificantes que señala la base undécima.

c) El 20% restante, previa presentación y aprobación, por parte de la Secretaría General de Acción Exterior, de facturas y justificantes del desarrollo del proyecto en un 100%, junto a la memoria justificativa que señala la base undécima y en el plazo máximo de dos meses desde la finalización del proyecto.

2.– Proiektuaren behin betiko guztizko kostua hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, Lehendakaritzako idazkari nagusiak kostua gutxitu den hein berean gutxituko du emandako dirulaguntza, proiektuaren bideragarritasuna eta zazpigarren oinarriaren esleipena eta kuantifikazioa kontuan izanda.

Hamaikagarrena.– Informazioa.

1.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzak direla eta, onuradunei informazioa eskatzen dietenean, onuradunek eman egin beharko diete aipatutako informazio hori erakundeoi, erakundeok bere egitekoak bete ditzaten.

2.– Dirulaguntzen onuradunek honako dokumentazio hau bidali beharko dute Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusira.

a) Proiektuaren garapena justifikatzeko informeak. Informe horiek dagokion dirulaguntza ordaindu aurretik onartu beharko dira. Informe horietan diru-sarrera eta gastuak zehaztuko dira, proiektuaren garapena deskribatuko da labur, eta sartutako aldaketak eta aldaketa horiek dakartzaten aurrekontu ondorioak jasoko dira.

b) Aurkeztutako egitaraua gauzatzeko gorabeheraren bat suertatzen bada, horren berri eman beharko da berehala, batez ere aldaketa honek proiektuaren guztizko kostuan eragina badu.

c) Proiektua bukatu ondoren, proiektua gauzatu dela ziurtatzeko memoria, proiektua bukatu den egunetik gehienez bi hilabeteko epean.

3.– Uko egin edo aurreko idatz-zatian eskatzen diren informe edo aipatutako datuak ez aurkezteak dirulaguntza bertan behera uztea edo ez ematea edo jasotako dirua itzultzea dakar berekin, azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuko 53. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.– Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzetakoren bat aldatzen bada, beste laguntza edo dirulaguntza publiko batzuk jasotzen badira edo helburu bererako beste diru-sarreraren bat badago, esleipen ebazpena aldatzea ekar dezake horrek, betiere onuradunak izateko gutxieneko baldintzak betetzen badira.

Hamabigarrena.– Eskaera-informea.

Eskaera-informea, sinatuta,

1.– Ekintzaren ezaugarriak.

1.1.– Proiektuaren izenburua.

2.– En los casos en los que el coste total definitivo del proyecto sufra una minoración respecto al importe inicialmente previsto, el Secretario General de la Presidencia procederá a disminuir la subvención concedida en la parte correspondiente, teniendo en cuenta la viabilidad del proyecto y los costes de adjudicación y cuantificación de la base séptima.

Undécima.– Información.

1.– Las personas beneficiarias deberán facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que les sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

2.– Las personas beneficiarias de las subvenciones quedan obligadas a remitir a la Secretaría General de Acción Exterior la siguiente documentación.

a) Los informes justificativos del desarrollo del proyecto, que deberán ser previamente aprobados para proceder al abono correspondiente de la subvención. En estos informes se hará constar el detalle de ingresos y gastos y un resumen descriptivo del desarrollo del proyecto, así como las modificaciones introducidas en la realización especificando las repercusiones presupuestarias que impliquen.

b) Comunicación inmediata de cualquier eventualidad que afecte sustancialmente la ejecución del programa presentado, en particular si esta modificación implica variación del coste total del proyecto.

c) Una vez finalizado el proyecto y en el plazo no superior a dos meses desde su finalización, memoria justificativa de la ejecución del proyecto que incluya la presentación del certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias o en su defecto, del documento acreditativo de la exención.

3.– La renuncia expresa o la no presentación de los informes y datos citados en el apartado anterior dará lugar a la suspensión o retirada de la ayuda y a la devolución de las cantidades percibidas, según se establece en el artículo 53 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

4.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso, la obtención concurrente de ayudas o subvenciones públicas y, en su caso, cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos exigidos para ser beneficiario o beneficiaria.

Duodécima.– Informe-Solicitud.

El informe de solicitud, debidamente fechado, sellado y suscrito contendrá:

1.– Identificación de la acción.

1.1.– Título del proyecto.

1.2.– Helburuak.

1.3.– Gastuen aurrekontua.

1.4.– Eskatutako dirulaguntza kopurua.

1.5.– Eskatutako beste dirulaguntza batzuk edota dagoeneko emandakoak.

1.6.– Hauetako zein arlotan sartuko zenuke proiektua?

a) Goi mailako irakaskuntza, teknologia, ikerketa eta komunikazio teknikak.

b) Ekonomia eta finantza garapena, kontsumoa, ingurugiroa, nekazaritza eta turismoa.

c) Gizarte ekintza, prestakuntza, kultura eta euskara zabaltzea.

1.7.– Proiektua hasteko aurreikusitako eguna.

1.8.– Proiektua amaitzeko aurreikusitako eguna.

2.– Eskatzaileen eta beste partaideen ezaugarriak.

2.1.– Izena edo izen soziala.

2.2.– Helbidea edo egoitza soziala (telefonoa eta fax zenbakia eta e-maila barne).

2.3.– Bankuko datuak (kontu zenbakia, sukurtsala, bankua edo kutxa).

2.4.– Ordezkariaren izena.

2.5.– Erakundearen izaera.

a) Irabazi asmoduna.

b) Irabazi asmorik gabekoa.

3.– Erantsi behar diren dokumentuak, bikoiztuta.

3.1.– Proiektuaren azalpen txostena eta proiektua gartzeko egitaraua.

3.2.– Pertsona juridiko edo fisikoaren identifikazio agiriaren fotokopia.

3.3.– Zerga alorreko eginbeharrak beteta dituela egiaztatzeko ziurtagiria, edo eginbehar horietatik salbuetsita dagoela egiaztatzekoa, bestela.

3.4.– Estatutuak (pertsona juridikoa bada).

3.5.– Banatutako aurrekontua.

3.6 - Eskatzaileak ordezkaria izateko duen fakultatearen akreditazioa.

3.7.– Aurreko bi urteetan zehar eta aurtengo urtean jasotako minimis-ei buruzko eskatzailearen aitorpena, laguntza berriak minimis-en araua ez duela gainditzen egiaztatzeko.

3.8.– Eskatzailearen aitorpena ez penalki ez administratiboki ez dela zigortua egon egiaztatzeko, dirulaguntzak edo laguntza publikoa jasotzeko aukerarik gabe, ezta laguntza jasotzeko ezgaituta egotea legezko debekuren batean sartuta egoteagatik.

1.2.– Objetivos.

1.3.– Presupuesto de gastos.

1.4.– Importe de la subvención solicitada.

1.5.– Otras subvenciones solicitadas o ya concedidas.

1.6.– ¿En cuál de estas áreas inscribiría el proyecto?

a) Enseñanza Superior, Tecnología, Investigación y Técnicas de Comunicación.

b) Desarrollo Económico, Financiero, Consumo, Medio Ambiente, Agricultura y Turismo.

c) Acción Social, Formación, Cultura y Difusión del Euskera.

1.7.– Fecha prevista de comienzo del proyecto.

1.8.– Fecha prevista de finalización.

2.– Identificación de la entidad o persona solicitante y otras partícipes en el ámbito geográfico al que se refiere el proyecto.

2.1.– Nombre o razón social.

2.2.– Dirección o domicilio social (incluyendo Tel., Fax, E-mail...).

2.3.– Datos bancarios (n.º de cuenta, sucursal, banco o caja...).

2.4.– Nombre de la persona designada como representante.

2.5.– Carácter de la entidad.

a) Con ánimo de lucro

b) Sin ánimo de lucro.

3.– Documentos necesarios que hay que adjuntar por duplicado.

3.1.– Memoria descriptiva y programa de desarrollo del proyecto, con fecha, sello y firma de la persona solicitante o de su representante legal.

3.2.– Fotocopia del documento de identificación de la persona física o jurídica.

3.3.– Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias o en su defecto, documento acreditativo de la exención.

3.4.– Estatutos (en el caso de ser persona jurídica).

3.5.– Presupuesto desglosado.

3.6.– Documento acreditativo de la facultad de representación de la persona solicitante.

3.7.– Declaración por parte del solicitante acerca de la existencia o no de cualquier otra ayuda minimis en los dos años anteriores y en el ejercicio en curso.

3.8.– Declaración de la persona solicitante en la que haga constar que no ha sido sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subveniones o ayuda públicas, ni se halla incurso en prohibición legal alguna que inhabilite para ello.